

LOYOLA'91

Iñigoren V. Mendeurrena

Loiolako 1956 eta 1982 urteen oroitzarrea

Loyola'ko Inazioren jaioturteak, bere V. Mendeurrena, jaialdi eder eta funtsezkoaz eraiki nai du. Orrela urte orren *uztaillaren 31*, eguna gogoan eukigarri izango dala usten du oraingoz «Loyola'91 Batzordeak». Gaurko batzordekide oek *1956' jubileu-jaiak* berriztatzen dituzte; Inazio Deuna il zanetik IV. Mendeurrena egun ortan ospatua izan bait zen. Milloi erdi erromes eta turista etorri omen ziren Loyola ikuskatu eta gurtzera. Egun artan Izarraitzko Xoxote gainean Iñigoren iduri ederra bedeinkatua izen zen: an da iraunkor txingor eta elurretan ere; zenbat aldiz pozten gaitu irudi orren argi zabalak, Iraurgiko zelayak eta inguruko mendarte gainak gabeko illunean argitaratzen dituztenean.

Orduandik dira Basilikaren ezker alboko Dorreak, Gotzai bedeinkapena artu ondoren, ikusi erazi zizkigun aurreneko kampai iraulke biotz pozeroaigilleak. Geroztik pestaburuetan batez ere dorre bietako campai jo aldiz Iraurgi ballara alaitzen zaigu.

Orain zoetzi urte, *1982' azillan*, beste gertakizun garrantzitsu eta funtsezkoa izan gendun Loiolan. Aita Santua, Jon Paulo II berbera etorri zen gure artean ordu batzuk beinik bein bizitzeko.

Au poza gurea Euskerazko agurra berberari entzun genionean: *Euskal Herriko kristau maiteok: Pakea zuei eta zoriona*.

Agur bero onek biotz hondoa bero ikuitu zigun. Onela asi zuen Mez-itzalditxo: «Poz biziaren pozetan suarki nago Loiolaraino eldu naizenetik; eta orain, begiaurretan daukadan zuen aurkeste arrigarriaren ikuspen eta zuen eresaldi entzupenakin».

Itzaldi laburra Aita Santuarena. Ez ote zaigu aaztu? Aberasgarri eta beroarazi-korra izango litzake itzaldi au berrizkatu eta zabaltzea nolabait obeto adierazteko

eran. Ez eskuetan orri batzuek banaketatzeaz bakarrik. Berez da aberasgarri, gartsu, beroerazle.

Aita Santuak, Loiolan izan ez gero, euskaldun batzuek —beste askoren tartean— Aldaretara igo erazi ditu. Berriotxoá'tar Balendin, Erquicia'tar Txomin, eta Araozaza Mikel santuen maillan; bigarren maillan badira Zudaire'tar Esteban eta Maiorga'tar Ion —au Donibane Garazikoa—, Domingo Iturrate, Rafaela Ibarra, eta batez ere gure Franzisko B. Gárate, emen Loiola Auzoaldekoa. Ion Paulo II zelaian, gure aldean izan zan artan, nola bait erdi-adierazi zuena, andik iru urte barru Erroma ko Pedro Deunaren Basilikan egiztaratu zuen: 1985 garreneko urrillaren seigarrenean ofizialki Beato izendu eta alakoa zala Eleiz osoari ziur adierazi zion.

Loiola'91 Batzordekideek baldin asmo au beregandu nai bait lukete, bereala ditzuten *Ekintza* egitaraietan, joera ontako ekinaldien bat ezarri dezakete.

Ikusi Aita Santuak Loiolako Mez-itzaldian esan zituen oek: «Herri aberatsa zerate, kristau, giza eta kultura balioetan: zuen millaka urtekiko izkuntza, zuen legezahar eta erakundeak, euskal erritarreen kemen eta izakera eratsua, abesti guztiz ederretan zerturiko sentipen leial eta gozoak, Familiaren gizatasun et kristautasun kutsua, hainbeste misiolarien bizkortasun ikustekoa, euskal gizon-emakumeen sinismen sendoa».

Ion Paulo II. emen Loiolan orain zazpi urte aoskatu zituen itz oek araubidetzat arturik, 1991'izketalari bikainek sortuko lituzkete, kristau izateari buruz, jardun aldi argitsu edo bai eta argikorak. Ion Paulo II berberak ere euskaldun oen santu edo Zoriontsu aitormenekoetan ezer asko jakin-arazi dizkigu gure eusko kristautasunari buruz, gaur ere lurralde ontan berrirotu eta bizkortzekoak.

Egia benetan esanik, Batzordekideek olako langaietan abiarazteko gizon trebe eta ekinzale dira noski; ala ere, geiegizkeriak lanpetuko lituzke bere egiñalak, eta eziñalean bazterreratu eta erabat utzi.

Pozemaille biurtuko degu Inazio'ren V. Mendeurte onen zear Aita Santuari gogorapen au opa etsitzen badiogu. Euskalerrria beti eskerzordun izango zaio, ain zuzen *bere erabakiaz* Loyola'ko Santutegira bisitaldi egiteko. Aita Santuak berez aitortu zion Donostiako Gotzai den Jose Maria Setien Jaunari: «bere naia eta borondatea zela Loiolara ikustaldi egitea». Bere itzetan, Euskal Errian dagoenez Santutegi ori, Euskalerrriari egindako ikustaldia bear zuen izan naitaez; aldi berean, erlijio-maillako izan bear zuen ikustaldiak.

Erabaki onetzaz Aita Santuak Euskaldun Kristauen izena gora eraiki zuen.

Azaroaren seigarrenean esan zigun Mez-itzaldia oraindik bizikor da, naiz ge-roztik izarkitu. Auts oek astindu eta sugar berogarriaz argigarri berpiztuko zaigu.

Oraingo V. Mendiurrena biur bedi auts-aga errauts oiek astintzeko.

I

AINTZINAKO LOIOLA

Loyolara urreratzekoan ederretsirik begiratzen oi diogu etxe aundi bikain orri; ez da, ala ere, Iñigoren jaiotze etxea. Iñigo il eta andik 133 asi zuten urtera etxe onen argintza eta eraikiguntza: osorik bukatzeraino oraindik beste berreun urtetan jo bearko zuten.

Etxe aundi onek Iñigoren Dorre-Etxea estalki babesean zaintzen du. Dorre onek ere zaartu ala aterpea bearrezkoa du. «Etxe-Santua» deitzen diogu gaur egunean, Iñigoren jatorrizko Gaztelu aspaldikoari.

1. Ynnego edo Iñazio

Ziur dakigu Dorreko azken semea oraintxe bosteun urte jaio zala. V. bere jaiotegunaren Mendeurrena ospatzen ari gera alegia.

Jaio eta andik egun gutxira Azpeitiako Eleiz Nagusian, oraindik an aurkitzen dan batai-arrian Juan de Zabala, Erretoreak, bataiatu zuen: izentzat Innigo (edo Ynnego, Yñego...) ezarri zion.

Garai artan ez zuten oraindik bataio-libururik agiritzat. Ala ez zaigu Iñigoren bataio agiririk eskuratu. Bere bizibitartean beti bere lagunak, Josulagunak alegia, kezkatan zerabiltzen Iñigoren urte zenbakia ziur egiaztu naiez; batez ere Aita Iñazio il ondoren illarria xixelatutzekoan. Zuzen azkenik igarri zuten noski Iñigoren adiña: irurogei eta sei urtetan il emen zan: onekin bat baten esana zetorren 1491 garrenean jaioa zala: artaz, Iñigoren bizibidea 1491 garrenean abiatua, 1556 garrenean bere azken mugara eldu zen.

Ze egunetan ordea 1491'urte ontan jaio zanak ez dakigu ziur. Ala ere urte epe oni muga ezarri dezaiogun azkenaldetik. Agiri bat gelditu zaigu garai artan sortu zana: zaldi baten salketa. Salpen orrek Azpeitian 1505'urrillaren ogeita iru garrenean muga ezartzen digu. Salpenaren aitorkide iru oek azaldu ziren: Goyazko Ynigo jauna, Garagartar Txomin eta «Ynnego de Loyola», iru oek Azpeitiako biztanle ziren. Aitorkide edo testigu izatekoak garai artako legebidez bear zitun gutxienez amalau urte beteak. Au ola danez, ziur degu Innigo 1491 garren urrillaren 23 garrenerako jaioa zala; zaldi salketa 1505 garrenen egun ortan bertan finkatu bait zuten aitorkiden itzean.

Urte ori azkenaldian ezarritako muga onetzaz laburtu zaigu. Baino, noiz? Baitelike ekainaren aurrenekoan gertatua izana. Egundortan Oña-ko Innigo, Benediktinoen Abat izan zanaren jaialdia ospatzen bait da. Loyolakoek bazituzten Oñatik ez ain urruti, bere aideak, Pancorbon, alegia. Oraindik ere an irauten du aspaldiko Oñaztarren armarriak.

Beste alde batetik aitatu bearke litzake Iñigo de Guebara, Oñatiko Jaun Nagusia. Au ere Loyolako Jon Pérez-ekin batera Cadiz aldeko Ximenan erbestetua bizi izan zan; arrazgero oso alkar lagun egin ziran. Bazuten bai eta ere beren sendietan zear-aidego alderatzea. Oñatiko Iñigo Conde Nagusiaren elkarpedeak asko lagunduko zien bai Loyolako Jon Pérez berari, bai eta onen seme umetxo Innigori ere...

Innego latíñez ez da zuzen Ignazio aldatzen. Bi izen oetatik bata ez du besteekin zer ikusirik.

Innego latíñez *Enecus*, edo obeto *Eneco* esan bear da. Ezaguna zen zuzen aldaketa au bai emen Gipuzko aldetan, bai eta Iruñean ere. Azpeitian eta Pamplonan Loyolako Innigori epaiketa ezarri zioten bai uriepaillek bai eta ere Iruñeako eliz-epaillek. Au ala izan zan 1515 garrenean, Iñigo Arevalotik Azpeitira etorri zan baten. Oen agiritan Iñigoren izena gazteleraz Ynigo de Loyola aitatzen da, latíñez ordea *Enecus de Loyolla* bein baino geyagotan.

Pamplonatik zauriturik ilzeko zorian ekarri zutena, azkenik sendatu zanen, Jerusalemenera erromes asmo tinkoz Barcelonatik zear Erromara abiatu zen, Aita Santu Adriano VI garrenagandik bearrezko zan baimena iritxitzera. Eskaera orren agiria oraindik Batikanoko Artxiboan dago. Aurreneko itzak orrela diote: «Enecus de Loyola, clericus pampilonensis dioecesis...».

Bestela ere Herri oetan zabaldua zegoen izen ori: or daude menditarateetan Eneco izentzat daukatenak: Enecuri, Eneconea, Enecosoeta eta abar.

Ignatius izena, Loyolako Iñigorentzat, aurreneko aldiz Parisko Unibersitate agiritan agertzen da, 1529 garrenean asirik.

Iñigoren eskutitz sorta azterkatu ezgero, Inigok Paris'en izan ondorendik bai Iñigo bai eta Ignatius erabiltzen ditu, orrela 1543 garren urteraino. Andik aurrera beti Ignatio; bein bakarrik, au da, 1546 garrenean, orandik Ynnego ezartzen du.

Iñigok bataioko izena Eneko artu bazun gaur Ignatio izena artu eta daramatenak, ez al dute Iñigo bere patroitzat zuzen aipatzen eta aintzat artzen?

Bai noski: Innego izenez bataiatua izan zen ura berbera, Apaizgoa artzekoan Ignatius da, eta orrela agirietan ere ezarri zioten; azkenik, ori berbera Aita Santu Gregorio XV. 1622 urtearen martxoko amabigarrenean *Sanctus Ignatius* esanez santu bezela Eleizari aitortu zion.

2. Oñaz eta Loiola

Lehenengo Oñazko Jauna, dakigunez Oñaz-ko Lope izan zen, 1180 urtealdean bizi izan zena. Bere ondorengoa Oñaz-ko García Lope, bere semea, 1221 urteetakoa. Oñaz-ko Lope García bere orren semeak 1261 garrenean gutxi gorabera, Loiolak Etxekoandre zana Añas (edo Inés) bere emaztetzat artu zuen; orduntik aurrerako Oñaz eta Loiola-ko bi etxe oek elkartu ziren.

Bi oendik Oñaz eta Loiola-ko Añas jaioak, Loyolako Ion Pérez ezkon senarra aukeratu zuen 1300 garrean. Ezkontza ontatik zazpi seme onartu zituzten; oetako lehenengoak ere Ion Pérez zuen izen, baina *Jaun* deitzen zioten. Onek ere loyolatarren andre berezi zuen, Loyolako Maria Pérez. *Jaun* aundi au bere anai Gil eta beste bost semeetatik bateratu eta erkideturik 1321 garrean, irailaren 19-20 egunetan Beotibarko gudaldian gurlari sartu ziran. Alfonso XI Erregeak «gudari banda malla» 1331 garrean asmatu eta eraiki zuen; Oñaz-Loyolako gizon kementsua sariztatu nai eta zazpi banda gorri urte zelayan zeramakien armarrria bereentzako eta ondorengokoentzako ere ederretsi zien. Ori da gaur ere Oñaz-ko etxeak berezkoa dun armarrria.

Loyolatar sendiak ere baitzun aspalditik berezizko armarrria. Loyolako Beltrán Ibañezek (I) Dorre berria 1405 garrenerako eraiki eta bukatu zuenean aintziñako armarrria ezarri zio sarrerako ate gainean sendi eta izenaren bereizgarri eta ezaugarritzat. Lehenagoko Loiola-basetxe zarretik atera erazi eta Dorre berriari bat baten ezarri zion.

Armarrri onek zazpireun bat urte izango ditu onuz gero: bi otsoren iduria darama, eta zutik bereen esku atzaparretan eltze bati su gainean jatorik eusten diote. Naiz «Errialdeen Anaitasunek» Dorre berri au 1456 garrenen lurperatu, alaz ta guztiz armarrria antxe bere tokian gelditu zen; oraindik ere antxe ikusten degu, naiz lehengo Gaztelu-Dorrea orain Jauregi antzera birberritua izan. Orrela Loyolako Ion Iauak Jauregia eraiki zuen Erbestetik 1460 garrean etxeratu zanean.

Aipatu dezagun bada Loyolako Ion Pérez (III), Iñigoren Aitona. Sancha Ibañezen seme izanik, garbi adierazi zien bere inguruko guztiei bera zela benetan Loyolako Jaun eta Nagusi. Iraetako Sancha Perezekin ezkondu zen.

Oetatik jaioa zen Loyolako Bertran Ibañez (II) de Oñaz, Iñigoren aita: 1439 garrean jaio zen eta 1467 garreneko uztaillaren 13 garrean Marina Sanchez de Liconakin ezkondu zen.

Oen seme zan Martin Garciak, Loyola sendikoen agiriak ajolaz azterkatu zituen. Bere gurasoen ezkontz agiria bir-aztertu ondoren, azkeneko orrialdean au idatzi zuen: «Ezkontz-ituna Loyolako Beltranena eta Andre Marina Saez de Valda, nere amarena». Martin semeak garbi dionez, zalantzarik utzitzeke Marina Saez de Balda zan bere ama («Contrato de casamiento entre Beltrán de Loyola e Dona Marina Sáez de Valda, mi madre»). Martin'en ama bai eta Iñigorena, anaiak bait ziren Martin eta Iñigo.

Marina berriz Doktor Ondarroaren alaba zen, au da, Martin Garcia de Liconarena; onek zuen «Doktor Ondarroa» izen ospetsua, jatorriz Lequeitio-koa, baño bere sendia Ondarroara aldatu zen. Garai ortan bera zan Balda-ko Jaun eta Nagusi.

Ez zan Martin Garcia de Oñaz bi oen seme zakarrena. Loyola-ko Ion zen gizezkoetatik lehen-seme. Napoles'ko gerrategietan 1496 ean il zen Martin zen bigarrena eta ondorengoa.

Oñazko Martin Garcia (I) 1478an jaio zen; 1498 ko irailaren amabi garrean, Toledo Errialdeko Ocaña Araozko *Magdalena* emaztetzat artu zun; Magalena koñata Iñigori amaordeko bezela gertazitzaion. Ez ordea aaztu Iñigok batu zuela arreba oso maitea *Magdalena*, Lopez de Gallaitzegi Ion-en andrea, Anzuolan bizi zana; Araozko

Magdalena, Oñatikoa jatorriz, Loiolako Martinen emaztea; beste Loyolako jatorriz Magdalena au, Echeandia eta Ozaetako etxe-andrea Anzuolan bizi zan edo bai ta ere Bergaran.

Martin García zen, bat baten, Oñaz eta Loyolako etxeen Jaun eta Nagusi. Jaurgo eta Nausigo oen eginkizun garrantziena zuen, bere ustez, bi Etxe oek alkartu eta Etxagintza bakarrean al baiz gora jaso. Asmo oriek aspalditik zerabilzkin. Iñigo Arevalo'tik aldendu eta Naxera-ko Dukearen etxeko egin zen. Dukearekin Valladolidera batean eldu zen. An zen Martin Garcia, bere anaia ere. Oñek lenbait len Etxegantza eraikitzeo baimena nai zuen. Ortarako Erregiña Juana eta Karlos Erregearekin saiatu zen batetik eta bestetik; eta azkenik iritxi zuen eraikikuntza-baimena. Usteko genduke, Iñigoren eragipenak Martin bere anaiak erabiliko zituela.

Bearrezko baimen ori 1518 ko martxoko bostgarrenean eskuratu zioten. Errege Karlos-ek zegokion agiria izenpetu zuen: «Yo el Rey».

Martin Garcia Loyolara biurtu zen eta estuasunik gabe lanean asi. Bere ondaneunek borobildu eta geitu nai zituen Etxaguntza indartsu eta omentsu sortu zedin. Ala ere errege agiriaren bideetan erabakitakoak ezereztu, eta berriro 1536 garrenean legebidez eraiki zuen. Etxaguntza onen Etxondo eta Oiñarri Loyola-ko Dorrea izengo zen; armarría ere bestela moldatu bear: Etxaguntzaren berezko armarría lau laurden zatikoa izango zen: bi goiko-erdialdeen laurdenetan, eskuinaldean Oñazko *zazpi bandagorridun* armarría; ezkerrean, Loyolako, bi otso eltzea jasorik dauzkena.

Etxaguntzak beti *Oñaz* deitura erabiliko du, bere ondorengoak ere bai. Etxaguntzaren oiñarri *Loiola-Jauregia* izango zen, *Etxaguntzatik ezin eramangarridun*, iño-rendua, erregearen baimenik gabe.

Aintziñatik asi eta Iñigoren bizi aldiraiño eldu gera.

II

GAURKO LOIOLA irureun-urte-zear eraikia 1689-1989

Aspaldiko edaspenez Iraurgi-ren alboan dakusgun Izarraitz tontor onek orrelakotsu buru ori sortu omen zun. Loiolako arri-etxe au berreun urte zear ainbeste lanez eraiki zutenean, arripuska ikaragarriak baztarrrik bazter nunai gelditu emen ziren. Oek denak bat baten tontortu zituzten. Tontor ori emen da oraingo Izarraitz-mendi.

Mendi ori ez da noski arritza utsa. Or ikusten bait ditugu pagadi ederrak, arizti orritsuak, zumardi eta alako lizardi bat edo beste errekatxo hondoetan... Basoetan

ba dira baserri bizitzeko egokiek, borda edo txabolak ere bai; iturri txoko zoragarriak; goi-goienetik urola errekaen ertzetara jaixten diren ur-txirristak.

Izarraitz onen egoalde goienen Iñazioren iduria zaindari eraikita ikustaritzen degu; iparraldean, ia itxas-ertzean, Itziar'ko Santutegian Itxasoko Izar Danaren antzirudia agurtzen degu.

Mendi biziduna, sustrai era askotakoak ernetu eta azten dituen; arritegi ortan bizi da landaregi bizikorra, belar-izpi ugari tarteetatik argitara ernetzen dira, gorakari eguzki billa. Abereek ere bizi dira; baserrietan gizon-emakumeak seme-alabekin beren umetxoari...

Loyola arri-etxe bikaina. Arrigarria da Urrutitik bere oskol lehen ikusi oidana. Oskolgain gora, argidorrea ere ikusten degu. Onen gain, burnigurutza Elgoibar'en galdatua, azken orratz bezela zeruraruntz, 1735 an, urrillaren 25 ean omenetxeari azkenik ezarri zitzaiona.

Oskolpean Inazio Deunaren Basilika aurkitzen da. Boil-erdi-ertz atzeragoxe, *arri-etxe osoaren erdi-unean berbertan*, or dago gau eta egun Iñazioren irudia oinpean agarria daukana.

Inazio izango zaigu etxe barru ontan gidari: esku ezker aldean liburu eder bat darama... Ortik aterako dizkigu, ibillian ibilliz, funtsezko irakaskuntza bizikorrak: A.M.D.G.

1. Loiola OROIT-ETXE edo «Monumentu»

Oñaz eta Loiolako Martin Garziak Erregearen agintez agiri bat iritxi zuen Loiolako etxeondoa «Errege-Maiorazgo» biurtzeko. Orrekin 1536 an Maiorazgoa eraiki zuen, oinarriztat Loiolako Jauregia zuelarik; izentzat bai Oñazkoa, bai Loiolakoa; bi oetan Oñazkoa aurrena izango zan.

Austriako Ana Mariak, Erregiñ Ama zalarik, esku artu zuen egia biurtu zedin garai artako Jesuitek burutan zerabiltzen asmoa, au da, Aita San Iñazioren Jaiotetxea Jesusen Lagundiaren oinetxe eta asabaetxe bein betiko izan zedilla.

Ana Maria Erregiñak ardietsi zuen bere Seme Karlos II gandik Loiolako Jauregia «Errege-Maiorazko» tik irten zezakela. Ala, 1682 garren urtean zear bukatu ziren bearrezko artuemanak, eta Jesusen Lagundiak bere Aita Iñazioren jaiotetxea, bai eta bere inguruko lurak ere, Errege Amaren eskuetatik zituen asmo ederrak egitaratzeko eskubidea lortu zuen. Jauregian eta inguruko lur aietan Inazio Aitaren omenerako oroit-etxe arrizko eder bat eraiki behar omen zen. Garai artan Gipuzkoako buru-patroi izendatua izan bait zan San Iñazio.

Erromako Jesuiten Agintari Nagusiak bere aldetik gogotan zeraman arrizko oroitetxe eta Eleiz nagusi bikain eraikitzea.

Karlos Fontana arkitektuari —Berniniren erromako ikasle ospatsuena zan— egi-tamu au burutu eta egitaratzea ezarri zitzaion.

Arrizko etxe eta eleiz nagusia eraikitzeko lanaldiak 1688 garrean abiatu ziran. Ez zuten gizon aiek asko uste langai ori azken bukaeraino jasotzeko orandik berreun urte éragin bearrezkoak izango zirenik.

Eleiza Nagusia eta Etxearen egoaldeko atala 1738 ko uztaillaren 31'—Inazio Deunaren pestaburu eguna— iriki ahal izan zen. Aldare Nagusiak beste zer egin aundia zekarren bere gain, eta 1747-1757 bitartean ziren.

Inazioren «Zillarrezko irudia» abenduko lotazillaren 21 garrean iritxi zen Erromatik. Erroman bertan «Francisco de Bergara, «Txikianak» —Balenziakoa bera—, moldeatu eta zillarretan zizelatua da. «Real Compañía Guipuzcoana de Caracas»en kotura joan zen lan sail au.

Arrizko etxe ederraren eraikintza lanetan eten gabe ari zirela 1767an, apirillaren irugarrean, goiz argia etorri aurretik Karlos III Erregeak Jesusen Lagundia Loyolatik, Españatik guztiro, Italia aldera erbesteratu zuen.

Artaz gero etxe eraiki lanetan berriro ekiteko 118 urteko utsuna bete barko zuten.

Jesuitek Fernando VII Erregearen baimenez 1816 garrean Loiolara itzuli ziren berriro...; baino 1821-1823, 1835-1851, 1854-1856 eta 1868-1875 urtealdietan beren Españako etxeetatik, eta alakotan Españatik guztiak atzerrira erbesteratuak izan ziren. Ala ere Karlsten lehen Gudan Jesuite Loiolakoak bertan jarraitu zuten. Alako baten ordea «Convenio de Bergara» (1839); Jesulagundiak berriro Etxe-Santua ustu bearrean arkitu ziren.

Garai ontan Mendizabal'en «Desamortizazioa» jesuiten Loiolako ondasunei aplikatu zitzairen. Arrietxe ederra, naiz oraindik erdi egiñik arkitu, Gipuzkoako Ahaldundiak, gogoz saiatu ondoren, Etxe osoa, zegoen bezela, bereganatu zuen. Orrela 1842z geroz Diputazioa da Loiolaren jabe, bai eta Eleiza eta Etxe-Santuarena ere.

Jesuitek azkenik Madrid'eko baimena lortu ondoren, 1880 urtean berriro Loiolara ere etorri eta bertan jarri ziren bizitzen. Bereala ahal egin osoaz ekin zioten Monumentu osoari azken bukaeraino bultzatzeko.

Azkena ematea azkar eta ziur lortzeko jesuitek «Junta de Obras de Loyola» deitzen zan elkarte sortu zuten, San Inazio maite zuten laiko batzuekin osatutako «Elkarte Anonimo», gaur ere zutik jarraitzen duena. Gipuzkoan eta beste toki askotan bildutako diruek laguntzen zuela, eta batez ere gipuzkoar askok bereen lan eskuak erruz eskaini eta ipiñi zituztelarik, 1885 urtean ekindako lanak, 1888 azkenerako ziero bukatuak osatu eta gelditu ziran.

Oroit-etxea 1688 garrean eraikitzen asi ziranetik berreun urte osatu ziren ain zuzen.

Cavaillé-Coll organua 1889 urtean ezarri zuten. Aurtengo XIX Loyolako Musika nazio-arteke jaialdian «organu erromantiko» onen Mendeurren aipamena izana da.

«Obras de Loyola» erakunde onek usufruktuatzen du Loiolako Etxe osoa bere Eleiz eta Etxe Santuekin. Alboko lur guztiak «Junta de Obras»en izenean Ofizialki ezarri eta idatziak daude, ta bera agiri da aien jabe.

Orandik urte gutxi, 1982 garrenean Aita Santu Jon Paulo II etortzekoa zen garai artan Etxe Santu eta oroietxe oso ikustatzera eta aztertzeraz etorri ziren aztertzaileak bai eta Arkitektoak. Bereen uste eta iritzi olakotsu au agertu zuten: Euskal Herri ontan arriz eraikitako monumentuetan garrantzitsuena Loiola dela.

Egi egiz, mundu guztitik oroipen au eraiketzeko era askotako laguntza erruz bialdu zutenek, nai zuten batez ere San Iñazio berbera «A.M.D.G.» ospatu eta goraiatu.

Asmo ortan datoz orain ere *LOIOLA'91* urtealde ontan Etxe Aundi ikustatu eta bertan otoitz egitera alde guztietako Erromesak, naiz eta besterik gabe Turista izenen Turoperator'mende etorri.

2. Loiolako «Santutegia»

Loiolako Dorrea gutxienez 1405 garrenerako eraikia zegoen. Baina 1456 garrenean «Errialdeen Senidetasunek» gain azpikatu eta bere iru ataletik bi lurreratu zizkioten. «Aide Nagusiekin» gudan bait zebiltzen. Loiolako Nagusi zen Jon —Iñigoren Aitona—. Enrique IV Erregeak erbesteratu (1457) eta Cadiz aldeko Jimena de la Frontera'runtz bialdu zuen. Inguru oetako beste Jaun Nagusi batzuek ere an alkartu ziran lau urterako. Ala ere *1460 ko uztaillean*, Loiolako Jon Jaunari barkapena *iritxi ondoren, berriro Loiolara biurtzen* utzi zioten, bai eta etxea *bir-jaso lehengo orma gainen eta berritu*, ez ordea lehen bezelako Dorre antzera. Horrela orduandik Dorre arroa zanak goiko zatia arrilluz eraikia dauka gure gaurko egun oetaraino. Arabetarren *mudejar* erara, Euskal Herrian —ala esan oi da— aurreneko aldiz.

Dorre zan onen bigarren maillan jaiou zan 1491 garrenean Iñigo Donea. Sarreran ate ondoan idazki au euskeraz irakurtzen da:

Etxe ontan 1491' an jaiou zan Loiola'ko Iñazio Deuna eta etxe ontantxe Iñazio 1521' an biurtu zan Jaungoikoarengana.

Loiola'ko «Dorre-Etxe» au XIV' garren gizaldi-azkenean jasoa izan zan, antziñako baserriaren leku berean.

Gipuzko'ko Hernandezek desegin da gero, Iñazio Deunaren Aitonak 1461' ean goi-aldea arrilluz berriro eraiki zuen. Ate gainean antziñako Loiolatarren arma-arria ageri da oraindik. Ikur edo babeski au, Oñaztarrenakin bat eginda, Loiola'ko Iñazio Deunaren sendiko ikur biurtu zan.

Bigarren mailla ortan bertan dago Jauregi onek zeukan bere Otoi-lekua. Leku onen sarreran dagon idatziak onela dio euskaraz:

Loiola'ko sendiaren elizatzxo aspaldikoa.

Iñazio Deunak erretaula au ezagutu zuen.

Gizakunde-Iragartzearen Flände'ko ool-irudia, Isabel Catolica Erregiñak Araotz'ko Madalen'i emana da. Iñazioarentzat Madalen ezkon-arreba izanik, ama-bezela izan zan.

Borja'tar Prantzisko Deunak ementxe eman zuen bere Meza Berria.

Arrebak esku-lanez apaindutako meza-jantziak emen daude gordeta.

Jauregi ontan izan zen, bai meza eman ere Otoi-leku ontan Xabier'tar Franzisko Deuna, 1540 garrenean Loiola zear bait zijoan Portugalko Mascarenhas Embajadorean Lisboaruntz geroago andik 1541'en Indietara itxasontziz joatekotan.

Oraindik etxejaunek Jauregian biztanle zirelarik —obeto esateko, bereen diru eraigilleak— 1604 garrenerako goiko bizi-lekuari «Aita Inazioren otoi-leku» deitzen asi ziren. Inazio «Santu» gorestsi ondoren (1621) ordea «San Inazioren goiko Kapilla» izendatzen zuten. Geroroxeago Jauregi osoak «Loiolako Santutegi» izena artu zuen. Orrela izendatzen dute 1634 eta 1653 garrenen egindako bildumak.

Iruñeko Gotzai Pedro Roche, Franziskotarra, Loiolan izan zan 1671 an. Dena ikustatu ondoren, abiatzekoan, egin zun idazkitik itz oek berezi ditugu: «Katoliko oneraspen biziz ikustatu dugu Loiolako Santutegia». Nai izango lioke gurtzarik aundiena Etxe Santu oni (25.9).

Santutegi bai izenez, baina Jauregi santuitzala zuenik ez zegoen ezer aspaldiko «Otoi-lekua» eta San Inazioren goiko Kapilla ezik. Gainontzean beste Jauregi bezelakotsu zen, nunai bezelako bizigelaz betetakoa. Hemen il zen 1676 garrenen Zuazola'tar M. Inazio, Loiolako aideetakoen azkena.

Arrezkero iru eunkada oetan Loiolan «Goiko Kapilla» izan dugu tokirik agur-garriena, bai Inazio berarengatiko; bai eta Kapilla ori egiz «Gogojardunen» jaiotoki izan zelako. Inaziok 1553-1555 urte inguruan, hil baiño aurreraxeago (1556 ean il zen) aitortu zuen: Gogojardunak ez omen zituen bat batean egin, baizik, bere barnetan ezer aurkitzen bazuen besteentzako ere ongari izan zitekenik, bere hartan idatzi egiten omen zuen. Horrela aukera, adibidez, kontzientzia azterketea lerro bera artaz, etab. Elekzioak, berezi, Loiolan atera zituela esan zuen, hanka batetik gaixo zegoenean, izan zituen espiritu eta pentsamentuen ezberdintzatik.

Bein sendatu eta hemendik Jerusalemgo asmoakin abiatu zenean, berarekin zerraman ia irurehun orri zituen liburu berak idatzitako bat.

«Gogojardun idazki sailla» ez da nolanaiko irakurgai libururen bat; gogozuzendariari bere eskuetan uztekoa baizik. Aurreneko aldiz 1548 garrenean irarri zuten. Geroztik lau milloi eta geiago ale irarriak ba dira. Latinez aurreneko aldi artan, gero ordea beste izkuntza askotara aldatua izan da. Azkeneko itzulketa, dakigunez, Finlandiako itzkerara izan da 1977 et 1981 garrenean.

Etxe Santua oraindik bere barnetan lehen bezela dago, 1460 garrenean berritu zuten bezelatsu. Baina bizileku, areto eta bestelako askotan aldaketa gogorak ezarri

zaizkio. Ala ere orain ere «Goiko Kapilla» dugu agurgarriena. Mundu guztitik datozte bai Josulagunek, bai beste lekaide edo lekaimeak, bai apaizak, bai Gotzaiak, bai eta azkenik Aita Santua ere, ez gutxitan bai eta kristau sinismenik ez dutenak ere, Otoi-leku ortan egiz otoitz egitera. Urtero 200.000 tik gora dira orrera datozten erromesak zenbatuak. Baina zenbatzeke joaten diranak, beste orrenbeste izan litezke noski. Franzitik egunero bostetik amarrera autobus badatozte.

Gaur egunean «Loiolako Santutegia» esanakin, Loiola oro esan nai dogu. Emen nunnai San Inazioaren arrenkura entzuten emen da...

3. Gogojardun Etxea

Loyola Gogojardunen sorlekua ez ezik, Gogojardun etxe guztien asiera eta sorburu izan da.

Jesuitek 1703 garren urtean etxe berri aundi onetan bizitzen asi ziran: egoalderako atala jaso ala, logela batzuek antolatu zituzten. Orrela jesuitek arrizko etxe ontan bizitzen al bezela sartu bezain laister, burutu zuten asmoa bai eta ere erabakia al zanez Gogojardunek egin naiko zituenentzat gela batzuek antolatzeke, norbaitzu oek bereen artean onartuak zitezela. Ez zan asmo au bat baten egingarria. Ala ere ortan polliki saiatu eta XVIII mende erdia baino lehen, eleiz nagusia irikitzerako, ireki eta antolatu zuten lehenbiziko Gogojardun-etxea, emen Loiolan noski. Aita Kardaveraz izan zen asmo orren eragille eta bultzaille bizkor.

Harrez gero Loiola beti izan da toki egoki berezia Gogojardunak egiteko, gero eta geiago gaur arte.

Orretarako etxe egoki berri bat Loiolan bertan eraiki beharra egiatu zuten: ez zan noski etxe berri au lehendik Santutegian bertan ari zanaren burkide sortuko: bai bere alboan betegarritzko eta egokitasunez osagarri lankide izango.

Etxeberri onek baditu gizon edo emakumeentzat 154 gau eta egun bizigela: bai eta otoitz toki egokiak, lagunartean bilerak eta elkarrizketak egiteko biltoki eta areto atseginak, iru edo lau txanda batera bilduko balitz ere.

Gogarte etxe ontan biltzen dira urteoro bataz beste bospasei milla gizon edo emakume; oetatik geienak San Inazioaren Gogojardunek egitekotan.

Guztien ardura «Kristo Erregeren Mirabe» deritzen lekaimeek daramate, etxearen zaindari berak bait dira.

Gaur etortzen asteakoak dira Loiolara Gogojardunetara txanda berezietan, Lekaime bereen bizibidetzat otoitzlaritza aukeratu dutenak. Datorren urte ontan asiko dira noski.

Gogarte etxe au bada bestelako biltzarre eta billera askoren kabi. Eliz-Artzai eta Gotzai Jaunak bildu ohi dira emen. Bai eta ere Eleizbarrutietako apaiz batzarrak. Lekaime batzuek emen bildu oi dira bereen Batzarre Nagusietan jarduntzeko. Izan

ere, hirurehun jarleku ditun areto aundi bat du etxeak, lau izkuntzetara itzulpenak eskaintzeko tresna eta antolaketaz horniturik.

Egungo egunean munduko bost lurraldeetan dira Gogojardunak eta Gogarteak egiteko tokiak eraikiak, eta ez jesuitenak bakarrik. Etxe orien seaska bezela Loiola da, oietako askok daramate Inazio edo bai eta ere *Loiola* izena.

1922. Aita Santu Pio XI garrenak San Inazio ixendatu zuen Gogojardunak emateko era guztien Zaindari eta bitarteko.

Jon Paulo II garrenak 1979'ko azaroan, *Angelus* ondorengo ohi duen itxalditxoan, Pio XI garrenaren Enziklika «*Mens Nostra*» aipatu eta goretsi zuen, berrogeitamar urte betetzen bait ziran Enziklika hura argitara eman zanetik. Horrela zion:

«Gogo-zuzendari eta erakunde asko ahalegindu dira Gogojardun-etxe berriak eraikitzen; merezi onez esan daiteke etxe horiek kristau bizitzaren birikiak bezelatsu direla kristau bakoitzarentzat eta kristau taldeentzat. Izan ere Gogojardunek barrengo zuzpergarri dira, Espiritu Santu Bizimailleak ematen diena, bihotzetan Jainkoaren graziak toki zabala aurki dezan».

4. Kultura-toki da

XVIII gizaldian dagoeneko Loiola «Aundikien Ikasleku», edo Letrak, Zientziak ta Filosofia ikasteko etxe egitea pentsatu zuten. XIX gizaldian Loiola Misio-Seminario bihurtu nahi izan zuten behin baiño gehiagotan, Etxea berriz irikitzeko arrazoi bidez. Lehenbiziko gerra karlistan karlista-buruen semeak azteko ikasleku izan zen. Ori Bergarako Konbenioarekin amaitu zen.

XIX gizaldiko azken egunetatik jesuita gazteei giza-letrak erakusteko etxe egin zen, «Filosofi utsa» ikasi aurreko Letra karrera bezela. Garai ontako irakasleen artean norbait aitatzekotan A. Ignazio Errandonea aitatuko dugu, Soflokes ondo zekiena, geroago Donostian, Espaiñan lehenengo unibertsitate-mailako empresa-eskola, E.S.T.E. edo *Escuela Superior de Técnica Empresarial* sortu zuena, giza balioz asko aberastutako karrera, empresa-buru bati dagokiona.

Orain Loiolak kultura-mintegi bat baiño gehiago du:

— «*Loiolako Histori-Artxibua*». Loiolako Jaurgoaren, Gipuzkoaren ta Espaiñako historiaren ere agiri asko gordetzen ditu: Lerma'ko Dukearen edo Italiako agiriak adibidez. Agiri bakarrak ere badauzka: A. Luengo'ren egunkari famatua edo A. Luis Martin'en —Lagundiaren buruaren— autobiografia adibidez. XV gizaldiko liburuak ere baditu —batzuk arrigarriri miniatuak—. Mundu guzian *Gogojardunen* lehenbiziko edizioaren (1548) bost ale besterik ez dira: aietako bat Artxibu ontan dago; bigarren edizioaren (1553) beste bat oso bakana ori ere.

— «*Euskal Liburu-gela*»: Lurralde ontako historian espezialdua, euskal literatura, Gipuzkoako Batzar Nagusien agiriak...

— «*Liburutegi Generala*», XVI ta XVII gizaldietako obra asko gordetzen duena, gaiñera literatura-kolekzioak atb...

— *Musika-Artxibua*, A. Nemesio Otaño'k legatua, oso gutxitan biltzen diren kolekzioak dituena.

— Loiolako *kultura-historiari*, euskal kulturari gagozkiola ain zuzen ere, ondorengo izen auek aitatu daitezke:

1. A. Manuel Larramendi, Andoainen (bere lehen abizena Garagorri) 1690. go abenduaren 25. an jaioa. Lagundian 1707. an sartu zen. Gizartean fama aundikoa izanez gaiñera, Loiolan bere euskera-lanagatik oso izen argia iritxi zuen. 1766. go urtarrilaren 25. an Loiolan il zen.
2. A. Agustin Kardaberaz, 1703. an abenduaren 20. an Hernani'n jaioa. 1736-1767 bitartean Loiolan bizi izan zen, andik bialdu zuen Carlos III'ak atzerrira. Italian 1770. an irailaren 18. an il zen Castel San Giovanni'n, Bolonia inguruan. Aren *Lan Guzien* edizio berria, bi volumen, 480 ta 444 orri, Bilbao, 1974.
3. A. Sebastian Mendiburu, 1708. an irailaren 2. an Oiartzunen jaioa. Jesuita 1725. an irailaren 5. an sartu zen. Loiola izan zuen bere predikatze bizileku. Carlos III'k atzerrira bialdua, 1782. an irailaren 14. an il zen. Urte ontan, aren eriotzaren bigarren gizaldia bete denean, aren argiragabeko lan bat bi liburutan argitaratudu A. Franz. Altuna euskaltzaiñak¹.
4. A. Raimundo Olabide, Gaizteiz'en 1869. an jaioa. Jesusen Lagundian 1884. an sartu zen. Ogeita zazpi urte zituenean euskera funtsez, sakon ikasten asi zen. Gogojardunak itzuli eta 1914. an argiratu zuen. Euskalzaindiko euskalzain osoa izan zen. 1921. urtean Biblia euskerara itzultzen asi zen. Ortarako Loiolan jarri zen bizitzen. 1932. an, Jesusen Lagundia sakabanatzeko agintza erten zenean, Aranzazura jo zuen, ta an jarraitu bere lana. 1935. an Gernikara joan zen ta an oraindik atera ahal izan zuen bere eskuz idazki salla. Emendik 1937. an Toulouse'ra aldatu zen, ta an il zen ezbeharrez 1942. an. Aren lan famatuena auek dira: *Itun Berria* (1931), *Biblia osoaren itzulpena* (1958): *Itun Zahar eta Itun Berria*, 2198 orriko liburu bat, Mensajerok argiratu Bilbon.
5. A. Plazido Mujika, Orian, Urnietako auzoan, 1906. an apirilaren 16. an jaioa. Jesusen Lagundian 1922. an sartu zen. Bere lan argiena, nolabait ere Larramendiren jarraipena, *Castellano-Vasco Itzegia* izan da, 1028 orriko liburu

¹ PATXI ALTUNA: *Aita Sebastian Mendiburu' ren Idazlan Argitaragabeak*. Bi liburu. I'ak 574 orri ditu; II'ak, 383.

bat. Eta 1981.an aren *Vasco-Castellano Iztegia* atera zan bi liburutan, bakoitzetik 10.000 ale, 20.000 ale inpresio egiten duena, 2098 orri.

— «*Musika, nazio arteko jai*». Aurten (1989) XIX.aldia ospatu da. Urte auetan zehar euskal musika entzun da batez ere: *Gorriti, Eslava, A. Donosti, Iruarrizaga, N. Otaño*. Asko lagundu du musika-jai auetan Basilikako *Cavaillé-Coll* organu ederak, A. Otañoren liburugelako orijinalak ere jotzen zirela. Javier Bello Portu izan da Jaialdien zuzendari, eta Juan Ignazio Uria aurkezleri.

5. Herri Irratia

Loiolaren gaurreguneko hedapen eta zabaldua ulertu ahal izateko, Herri Irratiak damaion ezagupidea luze eta sakona aztertu behar da, ezinbestean.

Fitxa Teknikoa: Izena, Loiolako Herri Irratia. Ezaugarria, EAK, 66. Katea, COPE (Cadena de Ondas Populares Españolas). Onda, Frekuentzia Modulatu, 99,8 megaziklotan. Lantokia Loiolako etxean kokaturik dago; eta irrati-zabalgailua, Iturriberri mendian (730 metro gora), Antzuolan.

1961'ko Otsailaren 11'an hasi zen lanean; eta 1965'ko Uztailaren 22'an isilerazi zuten. Halabaina, FM'ra frekuentziaz aldatu ondoren, 1966'ko Uztailaren 31'an Euskal Herriko bideetan zehar abiatu zen berriro. 1977'ko Ekainaren 11'an, Iturriberriko emantokia lehertu zuten. Hilabete horretan bertan, 25'an bein beinekoz berriz zabaldu ondoren, zabalgailu-ekipoa berritu eta berriz ere lanean normalki jarraitzea lortu zuen. Berritze onena garai artako 8.276.156 pezeta kosta ziren. Baina, *Loiolako Herri Irratiak* bere sustraiak herrian dituelako lekukorik onena, zera da: Euskal Herriko *entzuleriak* 7.725.506 pezeta eman zituen berrikuntza horretarako, *Loiolako Herri Irratiaren* ahotsa ito ez zedin.

Irrati onen ezaugarri nagusia, hitz laburretan esateko, gure gizartearekin uneoro duen lotura da, noski; kokaturik dagoen lurraldearen zerbitzutan daramatza ahaleginik haundienak, euskal gizartearen balioak landu eta bere etorkizuna hobetzeko egokiera bat emanez.

1970'ko urtean «ONDAS» saria irabazi zuen, «musikazko programa lokalik onenaren» txaloz. Eta Euskal Herriko prentsak, hori zela eta, Irrati honen lana eskertu zuen, «iparraldeko lurretan duen hedapena», «Euskal Herriko musika, folklorea, ohiturak eta kulturaren alde lanean ari den irrati honen garrantzia» azpimarratuz.

Entzuleriari dagokionez, Irrati honek Gipuzkoa eta inguruko beste hiru probintzietan duen hedapen zabalari esker 2.689.864 *bizilagunetara* heltzeko bideak egin ditu. Eta horrez aparte, Iparraldea ere aipatu behar da (Baxe-Nafarroa. Lapurdi eta Zuberoa) 250.000 bizi lagunez hornitua dago-eta. Euskal-Herria eta Nafarroan 17.681 km² gain zabaltzen dira.

Eta Kastila, Errioxa eta Aragoi aldeak ere guztiz garrantzitsuak dira aipamen hau egitekoan. Lurralde honetako orografia zailak —geroz gutxiago bada ere— bere muga eta isilguneak ezartzen ditu. Hala ere, *Herri Irratiak* duen *entzuleria* 600.000 bizilagun-euskaldunetan jo daiteke.

Aurtengo Apirillen argitaratu dituzte Gipuzkoan zenbat diren lan-egunetan egunero Gipuzkoako Irratien bat edo beste entzuten dutenak. Obeto ulertzeko entzunleen goraberak, parean ezarri dituzte bi urte oetako zenbakiak (1988, 1989). Ara emen entzule oen zenbakiak.

Irratia	1988	1989
SER OM	91.000	94.000
Popular Gipuzkoa	73.000	78.000
FM Loiola	35.000	41.000
OM Donostia	38.000	37.000
RNE-1	56.000	43.000
Eus. Irrat. TB-2	32.000	43.000
Eus. Irrat. TB-1	27.000	27.000
Popular FM-COPE	11.000	25.000
RNE-3	23.000	20.000
Arrate	16.000	6.000

Aurtengo beste Irratiak zenbaki beragokoak damazte.

Badira beste herrialdeetan bidezkan diren Gipuzkoarrak. Oetatik asko eta askok, Brujulako gaina harrapatzen duten bezain, *Loiolako Herri Irratia* sintonizatzen dute, hirrika biziz. Jakina denez ere, Gipuzkoatik Iruñera doazten lineako autobusetan, edo-ta Iruñetik Erronkerialdera dihoaztenetan ere, *Loiolako Herri Irratiaren* ahotsa sarritan zabaldu ohi dute bidezkarientzako.

Irratia eta Loiola batera alkartzeko lekukorik onenetakoa bat hauxe izan daiteke, sinismen-mailan: dakigunez, España guztian *Loiolako Herri Irratia* da *meza zuzenean egunero* ematen duen *irradi bakarra*: gure lurraldeko familia askotan, begirunerik haundienez, eta debozio guztiz jasotzen da mezu hau. Herri Irrati onen ekintze sakonetan ezarria bait-dago betebeharrak ebanjelio ikuspegi batez bete eta gizarte egizko balioak zaindu eta babestea.

Beste alor batean, politik-gertakizunak, musikari buruz egiten den lanari, edo lan kultural osoari, tarte bereziak ematen zaiozkio. Lurralde honetako nortasunak eskatzen duenez, ekonomia-industria erreportariak, jaialdiak eta kirolak ere sakon erabiltzen dira: eta, bidezkoa denez, herri-herrikoak diren gertakizunak, beren arrakasta berdingabea izaten dute: estropadak, zaldi-probak udaldian, footbola, pilota, krossa, ziklo-krossa, txirindulariak, aizkolariak etab. Euskal Herriko pertsonaiekin

egindado elkarrizketa ugari ere zabaltzen da, edo lurralde honetatik pasatu direnei zer esanik ez. Egunoroko bizitza eta kulturaren trukaketarako toki egokia da Loiola, izan ere.

Loiolako Herri Irratia, Iñigo jaiozanetik V Mendeurrena gertatzekoa dela-eta, beste irratiekin bat eginez, zerbitzu bereziak antolatzeko prestatzen ari da, batez ere Loiolako Etxea eta alderdia bisitatu naiko duten Erromes edo Turistentzako.

III

V. MENDEURRENAREN IRAKASPENA: A.M.D.G.

Bagoaz geldi-geldi, etengabe, Innigo jaiotzen ezkeroko V. Mendeurrena ospatzeko prestamenetara.

Oraingandik urte erditxo epea dugu aurretik.

Eusko Jaularitzak bere «Kultura eta Turismo» sailaren bidez zabaldu erazi zituen garaiz V. Mendeurrenaren asmo eta egikuntzak. Arau antzeko zerbaitzuk alainbe zuzen eratu zituen. Asmoaldi oiek ordea zer edo zer jakituzkoa zirudien. Asmo urrundaririk datoztenak ala izan bear noski. Bestela ezpai gabe antzeko oek, itz arro eta arinkeriz jauntzarren ezartzekotzat errikideek uko egingo dieke.

Bestetik ordea erritar talde osoa illunpean edo ezjakituz beregisa utzi eta eustea, ajolagabekeria dalakoan gaitz-iriziko lukete.

Egiz, egunkarien idazleei bai Eusko Jaularitzaren aldetik, bai Iosulagunenetik, aukera eman zaie ez bein bakarrik Santutegi ontara gura bait zuen etortzeko; batzar-txoan alkartu eta asmoen berri adierazteko, jakin dezaten noratsu dijoazen ari diran era aoskotako lanak. Orrela bereen irakurleei asmoen berri adieraziko zaie. Egun-karietan geroago ikusi oi izan ditugu idazkari oek zabaldu dituztenak.

Iosu Lagundiak ba du Mendeurren ontan zer ikusi eta artukizun, barren barrendik errotua. Ez emen Loiolan bakarrik. An edo emen Lagunartekoak nun lanetan jardun, an bertan eta beti beren Aitaren gogo biziemalle, pozkor eta bat baten iratzarriak berbizitzen ditu.

Jesuiten asmoa izango da alegia aldizkarien bat berriemalle zabaltzea; ez da ez Euskal-Erriko edo Loiolako berri billa sare artean bezela loturik geldituko. Lurralde orokorrera berri eske jo bearko du benetako Mendeurrena ezagutu erazi nai badu. Inazio bakarra da millaka jesuiten Aita bakarra. Inazioaren Mendeurrena jesuita guztion Mendeurren degu.

Urte Egutegi bat eskuztatzea guztientzat onuratsu izan liteke. Erazgopena sortu da: ez bait degu oraindiko egiaztu 1491'en urte artan ze egunetan Inigo jaio zanik.

Mendiurren-abiamen eguna uztaillaren 31'garrena izango da noski. Egundortan Aita Inazio il zan 1556'garrenean. Abia-aurrea ere izango du noski, urtero egin oi dana Inazioren pestabururako; bederatzi urrena izango da urte ontan izango dan Mendeurrenaren sarrera.

Abiatu ala *lenengo Geltokia izango degu*. Ortik joko zaie jesuitei berezizko Mendiurrenaren irteera: Nagusiburu A. Generala berbera izango da atetan, emen Loiolan, irteera ofizialki jo dezan. Alegia Iraillaren 27'garrenean beteko dira 450 urte *Aita Santu zen Paulo IIIk*, ofizialki Bulda-Bidez, Jesus'en Lagundia Eleizaurrean *araudun Religio-tzat* aldarrikatu zuela. Bulda orren lehen itzak, agiriaren izena oi bezela, oek ziren: *Regimini militantis Ecclesiae*.

Urteberri eguneko ospakizuna izango da urrengo Geltokia: Kristori *Jesus Izena* ezarri zioen eguna. Aspalditik Aita Ignaziok «*Jesus'en Lagundia*» izenez bere elkarteak izendaturik zeukan; Lagunek ere baieztu zioten bat baten; baña bereen baitan bakarrik. Irailla'ko *Bulda bidez Ofizialki* Eleizak *onetsi zuen lagunarte orren Buru zanaren Izena*.

Ezin oraingoz esan urtekari orrek martxoako 12'garrenari tokirik utzi dion: egundortan 1622'garrenen Gregorio XV garrenak Inazio eta Franzisko Xabierkoa Santu zirela oiukatu eta aipatu zituen.

V. Mendeurrenaren *goienmugara Inazio Deunaren urteroko Pestaburu* egunean elduko gera noski; jaialdi orrek ez du jaioteguna gogoratzen, zerura sartzea baizik. Guk oraingoz jakin naiez ikusmiran bizi gera, nun ze berri sortuko ote dan. Goizegiko jarduna dirudi ortan saiatzea; eziñalakotzat uztea da obe, zuzen jokatzeko. Berandugi izan aurretik, noiz-aldia gertutzerako, egi antzekorik ezer sortu orduko egiazkotuak bide ugari izango dituzte gudanazteko ain zuzen.

Urtezar edo *Urteberri Jaialdietan* Loiolari begitaldi bat egin naiez datoztenak, langite batzuetan aurreratuak dabilta; ez ainbeste beste alako batzuk, bait badire oraindik artan asigabeak. Oen artean oartu degu, ez daudela oraindik gerturik uste zan bezela, bear izango diran ainbat areto ospakizun betetzeko. Aun ontara etorri da. Loiola'ko Jesuitek, Etxeandui onen ibai aldean, bai etxebarruetan bertan, bai baratzen jolastokietako eskola egunetan, Ikastolarentzat leku zabala utzi zuten; ori bai, Mendeurrenako bearrezkoa izan daitekena; eta uste onean jardun ala, azkenik 1988-1989 urterdirako ez dira oraindik prest izan; ala ere orain urteberriko egunetan, garai egokibidez bearrezkoak antolatua izango emen dira emengo lanetan ere asteko.

Bitarte ontan sartu gaitezen Basilikara, naiz an ere langizonak betik asi eta goi goraino, eleiz osoa burni agaz artuta euki.

Aldare Nagusia agirian dago. Inazioren irudia nabarmen ikusgarri daukagu. Lendik esana da Iduri onek *etxe aundi onen erdi erdian* dauzkala oiñak ezarrita.

Oraindik *gorago, goigoierano begiratu* eta an auxe ikusiko degu miresgarri: Goienen *Aita Jainkoaren* iduria, marmol zurietan egiña; Aita *Kristori* begira dago,

zerbait esan naian bezela; Kristok eskuetan Gurutzea darama, au ere mazmoletatik ateratakoa. Kristok ez du Aitaren albora begiratzen; *Inazio-ri begiratzen dio*. Aita eta Semearen tarte *Espiritu Santua* agiri da; *batasunean* biekin lotu eta Trinitade Santuaren irudia adierazten digu.

San Inazio berak esanik, dakizkigu Aita Jainkoaren itzak. Aitak bere Seme *Kristori* esan zion: «Nai det zuk au Serbitzari ar dezazula». Eta Semeak, au da, *Kristok*, *Inaziori esaten dio*: «Nai det zu gure Serbitzari izatea».

Emen Loiolan, Kristok, Aita Jainkoagandik artu dun mezu ori, Inazio'ri biraldatzen dio bein artu zuen mezu berbera.

Inigok bere burua eskuin aldera zearkatua dauka. Adi-adi entzun naiez dagola dirudi, nor-baitek itz egiten dio... Kristok berberak. Kristok, Aitagandik artutako mezua. *Kristok* mezu orren agiria itzez eman dio *Inigori*. Aita-Semearen betiko batasuna... *Inigok ere mezu ori artzen du, Trinitade-mezua...*

Kendu dezaizkiogun Aita Inaziori daramazkin zillarrezko apaizjantzi oyeke. Inigoren barren barrena agiri dakigula.

Badakigu zein biziki ari zaion Espiri Santua: berak aitortuz dakigu: «*Eliza baten zegoela eta otoitz eginik, ain aldatua nabari zuen arima eta ain argi ikusi zen bera Jainko Aitak Kristo Semearekin jartzen zuela, ez liteke dudatzen ausartuko; baina... Aitak bere Semearekin jartzen zuen...*».

Biotz aldaketa ori ez zun Inaziok giltzapean gorde, zillarrak ere aldakorrek dira. *Eskerreko belauna* ibiltzeko bezala du; *kasulla ere aldatu*, Espirituaren indarrak jo eta erabilli balu bezela... Inigok sorgortu, eta itzgabetua dirudi; alaz ta guztiz eskuinekin ezkerrean daukan liburu-orrian idatzi eta erakusten dizkigu: A.M.D.G.

Gu serbitzarioen eginberra auxe izango degu: maite gure Jaungoigoa; maitearen maitez, diran guztiek Jainkoa bere Irutasunean aintzatu dezatela.

Ori degu Aita Inaziok egunoro irakasten diguna. Loyolan ori ikasi badiogu, aberastu-ta irten gera.

J. ITURRIOZ
Loiola'ko Santutegitik

LOYOLA'91
EN EL V. CENTENARIO DE IÑIGO

El artículo pasa revista a los principales momentos históricos de Loyola y de su Santuario. De entrada se dedica un recuerdo especial a la visita de Su Santidad Juan Pablo II el año 1982, destacando el homenaje extraordinario que con ella hacía

el Papa a Loyola y al País originario de S. Ignacio, y con la posterior elevación a los altares de un número considerable de compatriotas del Santo. Y entra en el tema con datos interesantes sobre su ascendencia desde el año 1180 hasta su nacimiento a finales del siglo XV. Muerto y canonizado el Santo, el año 1682 comienzan las gestiones para que alrededor del solar de los Loiolas se erija el santuario que en sucesivas etapas se transformara en el actual Santuario con todas sus dependencias. En los inicios del siglo XVIII se establece allí la Compañía, que la convertirá en centro de irradiación espiritual y cultural y de casa de ejercicios ignacianos. Con algunos eclipses impuestos por gobiernos sectarios, llegamos a nuestros días, en que a la actividad espiritual específica de la Compañía se añade la que desempeña como centro cultural importante con su Biblioteca general y euskérica, archivo musical, etc. con su Radio Popular de audiencia muy adicta en el País. Como colofón se da un avance de los actos oficiales conmemorativos programados o por detallar.

**LOYOLA 91
EN CE V^e CENTENAIRE D'ÍÑIGO**

L'article parcourt les principaux moments historiques de Loyola et de son sanctuaire. Dès le début on consacre une mention spéciale à la visite de Sa Sainteté Jean-Paul II en 1982, soulignant l'extraordinaire hommage que le pape rendait ainsi à Loyola et au pays d'origine de Saint Ignace, ainsi qu'en faisant ultérieurement élever sur les autels un nombre considérable de compatriotes du saint. Il entre dans le thème avec d'intéressantes données sur l'ascendance du saint depuis 1180, jusqu'à sa naissance à la fin du XV^e siècle. Le saint mort et canonisé, commencent en 1682 les démarches pour qu'autour de la maison des Loiolas on érige le sanctuaire qui se transformera par étapes successives en l'état actuel avec toutes ses dépendances. Au début du XVIII^e siècle s'y établit la Compagnie qui le convertira en foyer de développement spirituel et culturel et en maison de retraites ignatiennes. Avec quelques éclipses imposées par des gouvernements sectaires, nous arrivons à notre époque où à l'activité spirituelle spécifique de la Compagnie s'ajoute celle exercée en tant que Centre culturel avec la Bibliothèque de culture générale et basque, ses archives musicales, etc..., avec sa station de «Radio Populaire» qui compte dans le Pays un éventail d'auditeurs très fidèles. Comme couronnement on donne un flash d'information sur les actes officiels commémoratifs déjà programmés et ceux qui restent à préciser.